

"Egalité!"

Euskaldunon Egunkaria, 1992-11-10: 2.

Frantziak XVIIIan egin zuen iraultzak printzipiozko aurrerapen ederrak lortu zituen gizartean. Ezin uka. Baina garai berean geure herriak jasan zituen eraso gaiztoak: hasi herriaren askatasuna, herriko legea ('abolition du droit Basque'), eta deportazioaz ('L'internat') Zuberoan, 1790ean, Lot, Lot-et-Garonne da 3.000 pertsona inguru; izua ('la terreur') Sara, Jatsu, Azkaine, 1794ean; erlijioaren aurka; euskarari jarraiki zioten eskolan, elizan, kalean eta etxe barruetan ere. Mundu honetan ezarritako infernua izan zen hau dena! Erregeek eta despotek lortutako gauza asko askatu zituzten, bai, baina Herri zen hau, bere lege, hizkuntza, erlijio eta bizibide zibilizatuak zituen Euskal Herri hau, su eta gar pasa zuten. Norbaitek esaten badit munduan lortzen diren aurrerapen guztiak odol inozentez bustita datozela, badakigu frantsesek adina! Zaharragoak ere bagara! Eta gaur frantsesa Europa prestatzen nagusi izan nahi du, bere hizkuntza sakratua, frantsesa, nahi du eskusiban, satelite, irrati, kable, telebisio eta bestekin ongi babestua eta zabaldua; hori, bere kontu, baina, bidenabar!, ez dezala utzi euskaldunon hitza Elizabeth Guigou ministro sozialista modernuak nahi duen bezala, *baliogabe administraziorako, zerbitzu publikorako, bizitza ekonomiko eta sozialerako*. Dena beretzat eta bere usorako bakarra! Sozialista ona! Hori agintzen dion Presidente, bere agintea galtzeko bezperan ari da ordenak ematen. Eskerrak, 'Dieu' frantsesa, François Mitterrand jaunak.